Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko otsailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko otsailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.215ekoa izan da, urtarrilean baino 130 gehiago eta joan den urteko otsailean baino 136 gehiago. Egunean bataz bestez 61 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 12 eskaintza gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko otsailean 165 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 498 Gipuzkoan eta 552 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 45,4 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 41 Gipuzkoan eta % 13,6 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 2,9 murriztu dira eskaintzak (5 eskaintza gutxiago), Gipuzkoan % 17,2 hazi dira (73 eskaintza gehiago) eta Bizkaian eskaintza kopurua % 12,6 hazi da (62 eskaintza gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban eskaintza kopuru 37tan hazi da, % 28,9ko hazkundea; Gipuzkoan eskaintza kopurua berdin mantendu da, eta azkenik, Bizkaian 99 eskaintza gehiago izan dira, % 21,8ko hazkundea.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. Ia 5 eskaintzeko 1 zerbitzuetako lanbide-profilerako erregistratu da (224 eskaintza); industriako langileen lanbide-profilen antzera (223 eskaintza). Laguntzarako teknikari, zientzia teknikari eta okupazio ez kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 187, 186 eta 175 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu den profila zuzendariena izan da (6 eskaintza soilik), lehen sektoreko langileen eskaintzen atzetik (15 lan-eskaintza).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota gehienak hazi dira, administrari eta zuzendariena izan ezik. Gehien hazi diren eskaintzak, balore erlatiboetan, lehen sektoreko profilekoak izan dira (% 50ko hazkundea, 5 eskaintza gehiago); balore absolutuetan, aldiz, kualifikatu gabeko profilekoak izan dira (45 eskaintza gehiago, % 34,6ko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, kualifikatu gabeko profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (62 eskaintza gehiago, % 54,9ko hazkundea), balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko profilekoak (%200eko hazkundea, 10 eskaintza gehiago). Balore erlatiboetan gehien murriztu diren eskaintzak zuzendarienak izan dira (% 25eko murrizketa, 2 eskaintza gutxiago); balore absolutuetan, ordea, industriako profilekoak eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (23 eskaintza gutxiago, % 9,3ko murrizketa).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 13,5ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 85,3k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 1,2k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 164 izan dira, 13 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 8,6ko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 112 gehiago erregistratu dira: 1.036 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 12,1ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko otsailean 15 izan dira, aurreko hilean baino 5 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 34 gehiago izan dira (% 26,1eko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 11,2 hazi dira, 104 eskaintza gehiago eta merkataritzako kontratuak, aldiz, %11,8 murriztu dira (2 eskaintza gutxiago).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko otsailean erregistratutako lan-eskaintzen 2 herenek (826 eskaintza) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 18,5ek (225) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Eskaintzen % 10,9k, 225ek, urte 1etik 3ra arteko esperientzia eskatzen du. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 2,1eko eta % 0,5eko pisua dute, hurrenez- hurren (25 eta 6 eskaintza guztira).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, 0-6 hilabete eta 6-12 hilabeteko esperientzia eskatzen duten eskaintzak hazi dira. Alde batetik, gehien hazi diren eskaintzak 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan (117 eskaintza gehiago, % 16,5eko hazkundea). Beste aldetik, 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen duten eskaintzak dira gehien murriztu direnak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, %50eko murrizketa (6 eskaintza gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: balore absolutu eta erlatiboetan gehien hazi diren eskaintzak 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (139 eskaintza gehiago, %20,2ko hazkundea). Hazi egin dira, baita ere, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak, 11 eskaintza gehiago (%5,1eko hazkundea). Murriztu diren eskaintzak 1 eta 3 urte arteko esperientzia, 3 eta 5 urte artekoa eta 5 baino gehiago eskatzen dutenak izan dira (5, 7 eta 2 eskaintza gutxiago, %3,6, %21,9 eta %25eko jaitsierak, hurrenez hurren).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, 2018ko otsailean eta 2019ko urtarrilean bezain beste.

- **LANALDI MOTA**

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 16,6k zehazten du datu hori (1.215 eskaintzetatik 202). 202 eskaintza horietatik, 160 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 42ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 13 gehiago izan dira urtarrilarekin alderatuz, hau da, % 13,5 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 18 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 30ekoa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 35 gehiago izan dira (% 25eko hazkundea), eta lanaldi partzialeko 2 eskaintza gutxiago erregistratu dira (% 4,5eko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko otsaila, 2019ko urtarrila eta otsaila), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2018ko urtarrilean izan da, % 29ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien aldean.

- **ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)**

Erregistratutako eskaintzen % 1,7 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.215 eskaintzetatik 21 soilik. Aurreko hilean %1,9 izan ziren.

- **ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA**

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,4k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.215 eskaintzetatik 226k soilik zehaztu dute.



226 eskaintza horietatik, 107k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 47,3k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 59 eskaintza (% 26,1). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 48 eskaintzekin (% 21,2). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 12 eskaintzekin, eta % 5,3ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 226 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago otsailean lan-eskaintza gehiagotan zehaztu dela prestakuntza maila urtarrilean baino (226 eskaintza otsailean; 202 urtarrilean), eta hauen pisua eskaintza guztien artean urtarrileko berdina da (% 18,6koa). Hilabete arteko erlazioari errepa-

ratuz, eskaintza mota guztiak hazi dira batxilergokoak izan ezik. Gehien hazi diren eskaintzak bai balore erlatibo eta bai absolutuetan LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira, % 24,4ko hazkundea (21 eskaintza gehiago).

2018ko otsailarekin alderatuz, eskaintzak guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (21 eskaintza gehiago, %55,3ko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak hazi dira gehien (20 eskaintza gehiago, % 71,4ko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria, merkataritza eta eraikuntza dira, eskaintzen % 17ko, % 15,2ko eta % 9,5eko pisuarekin, hurrenez- hurren (207, 185 eta 116 lan-eskaintza 1.215 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintza motak, balore absolutuetan, eraikuntzakoak izan dira (30 eskaintza gehiago, % 34,9ko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, jarduera artistikoen eskaintzak izan dira (% 228,6ko igoera, 16 eskaintza gehiago). Eboluzio negatiboa izan dutenen artean, balore absolutuetan bilakaera okerrena izan dutenak hezkuntza jardueretako eta jarduera zientifikoko eskaintzak izan dira (8 eskaintza gutxiago bi kasuetan, % 10,8 eta % 9,3ko murrizketak, hurrenez hurren); balore erlatiboetan, aldiz, ur horniketako eskaintzak izan dira (% 44,4ko murrizketa, 4 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eboluzio okerrena pairatu duten eskaintzak balore absolutu eta erlatiboetan ur horniketakoak izan dira (10 eskaintza gutxiago, % 66,7ko murrizketa). Bestalde, balore absolutuetan bilakaera onena izan duen jarduera merkataritzakoa izan da (35 eskaintza gehiago, % 23ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 800eko hazkundea, 8 eskaintza gehiago).